

**DOMUND 2017
IZAN ZAITEZ AUSARTA,
MISIOA ZAIN DUZU**



**IZAN
ZAITEZ AUSARTA,
MISIOA ZAIN DUZU**
SÉ VALIENTE, LA MISIÓN TE ESPERA
DOMUND
2017ko URRIAK 22 22 DE OCTUBRE DE 2017
#DOMUND

AITA SANTUAREN ARDURAPEKO
EKINTZA MISIOLARIAK



OBRAS MISIONALES
PONTIFICIAS

MISIOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – Entreplanta.

48005-BILBAO. Teléfono 94.401.36.99

E-MAIL: misiobi@misioak.org. misiobi@bizkeliza.org

DOMUND 2017

“Izan zaitetz ausarta, misinoa zain dozu”

Aurtengo goiburua, “IZAN ZAITEZ AUSARTA, MISINOA ZAIN DOZU”, misinorako deia da danontzat. Geure egiten dogu Frantzisko aita santuaren proposamena: aparteko misiolari hilebetea bizi, *misio ad gentes* dalakoaren inguruan otoitz egiteko eta hausnartzeko aparteko aldia bizi... Fedearen alderdi unibersala eta kristau maitasuna behartsuenakaz bizitzeko bere konbitea onartuz, misinoren jardunladi hau Eleiza osoagaz bat eginda ospatuko dogu. Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzen bitartez, misiolarien eta misinoren beharrizanei aurre egiteko uholde anaikor eta solidarioa eragin gura dogu, bide batez gure Eleizaren misiolari sena sendotuz eta suspertuz.

Dei egiten deutsegu alkarte guztiei DOMUND eguna dala-eta antolatu diran misiolari lankidetzarako jardueretan. SCAM (Misiolari Sustapenerako Baterako Zerbitzua) deitutako taldeko misiolarien lankidetzara nabarmendu gurako neuke. Eurak ikastetxe eta ikastoletara joango dira lekukotasuna emotera. Azken batean, Ebanjelioaren indar eraldatzailearen lekukotasuna emoten daben esperientzia esanguratsuak dira. Euren misiolari testigantza entzun gura daben parrokiek jo daiela ordezkartzara.

DOMUND egun ona izan! Aprobetxatu daigun misiolari egun eta hilebetea hausnarketa egiteko eta gure talde eta alkarteetan, geure segurtasun eta mugak gainditu eta beste kultura eta errealidade batzuetara zabaltzeko nahia bizteko eta ekin deiogun bideari, Jesusen Barri Ona danengana eroateko.

Eskerrik asko kanpainan laguntzen dozuen guztioi!

Felicitas Martin Fernández.

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaria

2017ko Domund - Misinoa kristau fedearen bihotzean

Anai-arreba maiteok.

1. DOMUND egunerako aurtengo goiburuak misinoa jarten dau kristau fedearen bihotzean, erdi-erdian. Jesusek, Aitaren ondora itzuli aurretik, hauxe agindu eutsen ikasleei: "Zoaze, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz eta nik agindu deutsuedan guztia beteten irakatsiz. Eta ni zuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte" (Mt 28, 19-20). Misinoa, beraz, Jaunak bere ikasle autortzen diranei emoten deutsen agindua da.

2. Jesusen agindu honek hainbat osagai dauala ikusi daikegu. Aginduaren lehenengo zatia agintzari kontsolagarri eta itxaropentsua dan bigarren zatian oinarritzen da: "ni zuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte". Berak gure ondoan, gure artean geratu gura izan dau. Bere presentziak giza bizitza osoan argi egiten dau, maitasun, itxaropen eta errukiz betez. Dagoeneko ezin dogu bakarrik gagozala esan. Jauna gugaz dago eta Bera badago, bere Gorputzean, hau da, Eleizan be badago. Honan, errealidade handiagoan murgiltzen gara, Jaungoikoaren egundoko opari lez emoten jakun alkartasunean. Jesusen ikaslea Jesusegaz eta anai-arrebakaz alkartasunean bizi da.

3. Jesusen presentzia honetan, bere presentzia benetako eta eraginkorrean oinarrituta, eta bere hitzean konfiantza eukita, egunero bota daikeguz sareak mundua dan itsas zabalean, Pedrok Jesusen deiari erantzunez egin eban lez. Itsaso hau era askotako herriez, nazinoez, arrazez, hizkuntzez eta kulturez osatuta dago. Eta Jesusek ikasle izate hori gauzatzeko jarduera biak aitatzen ditu: bateoa eta Jaunak gure esku itzi dauana gordeteko irakaspena. Espiritu Santuak eusten eta eragiten ditu dalako jarduera biok: "Inork ezin dau esan "Jesus da Jauna" Espiritu Santuak eraginda ez bada" (1 Kor 12, 3). Irakaspena ez da giza bihotzean sustraitzen Espirituaren eraginez ez bada. Era berean, bateoan Jesusen bizitzara igaroten gara gure bihotzetara isurtzen dan Espirituaren bitartez. Misinoa fedearen bihotzean bada, Espiritu Santua misinoaren bihotzean da. Berak sortzen ditu misiolari bizitzarako bokazino barriak eta Jesusen ikaslearen alderdi guztiak sutzen dabezan doez eusten deutso bizitza horri.

4. Misino hau ez da bakarka egin beharrekoa, alkartean, beste batzukaz batera garatzekoa baino. Kristok Eleizaren alkarte izatean murgiltzen gaitu. Ebanjelizazioa bat eginda burutu beharreko egitekoa da. Espiritu Santua bera da alkartasun honen eragilea eta berari esker herri, hizkuntza, arraza eta nazino anitzek herri bakarra osatu daikie Jesusengan. Frantzisko Aita Santua, aurtengo mezuan, gazteengana zuzentzen da batez be, gazteen bereizketa eta fedearen inguruan ospatuko dan sinodoa dala-eta. Bere esanetan, eurak dira misinoaren itxaropena. Benetan, gaztearen bihotzak egundoko eskuzabaltasunez eta ausardia handiz erantzun deikeo Jaunaren deiari. Erosotasuna, burgesamendua, misiolari ardurarik eza, bihotz zaharkituei dagokie. Misinoarako deiak adinez gazteak diranak suspertzeaz gainera, gure bihotza zahartzen eta gogortzen dauan, prestasunez eta poztasunez erantzutea galarazoten deutsan guztitik askatu gura dogunok be suspertu behar gaitu. Era batera edo bestera, danoi egin jaku misinoagaz bat egiteko eta misinoan parte hartzeko deia. Eskatu daigun Jaungoikoaren argia, dei hau gure bizitzetan egia bihurtu ahal izateko.

5. Maria, Gabriel aingeruaren iragarpena jaso ebanean, "etxetik atara eta Judeako mendialdeko uri batera joan zan arin-arin" (Lk 1, 39), bere lehengusina Isabelengana, eta iragarpena eta zerbitzua nabarmentzen ziran bere jarreran. Misinoak bidean jarten gaitu, indarbarrituta, Barri Onaren iragarpenean eta Jaungoikoaren Erreinuaren eraikuntzan parte hartzeko. Iragarpena eta zerbitzuetan txanpon beraren alde biak dira eta Jaungoikoren esperientzia sakonetik sortzen dira. DOMUND egun honek jarri daijala barriri misinoa gure fedearen bihotzean, misinoak gogor durundi egin daijala gure bihotzaren sakonean. Jaunaren esku itziko doguz gure misiolariak eta gure otoitzagaz eta laguntza material eta ekonomikoagaz eurei laguntzeko konpromisoa hartuko dogu. Egin daigun otoitz misinorako bokazinoen alde eta berbiztu daitela misiolari garra gure bihotzetan eta atara gaizala gure koformismoetatik misinorantz joteko, Jaunaren hitz eta deian uste osoa jarrita. Maria misinoaren Erregina eta Amaren bitartez eskatzen dogu. Bihotzez.

+ Mario Izeta Gabikagoxeaskoa

Bilboko Gotzaina

URRIAK 22 – URTEAN ZEHARREKO XXIX. DOMEKEA **DOMUND 2017 – “IZAN ZAITEZ AUSARTA, MISINOA ZAIN DOZU”**

SARRERAKO OHARRA

Kristo berbiztuaren mahaiaren inguruan batu gara. Bere inguruan batzen gaitu guztiok, baina aparteko arreta jarten dau behartsu, apal eta atsekabetuarengan.

Domund, Misinoen Munduko Eguna ospatzen dogu gaur Eleiza osoan. Frantzisko aita santuak egun hau dala eta bialdu deuskun mezuan gogoratzen deuskunez, misinoa da kristau fedearen bihotza eta goiburuari jarraituz, ausartak izan behar dogu, misinoa zain dogulako.

Eleizaren misinoa, borondate oneko gizon eta emakume guztien ardura da eta Barri Onaren indar eraldatzailea dau oinarritzat. Zabaldu deioguzan gure bihotzak Jaungoikoari gure misiolari sena biztu daian, bateoan Espirituaren bultzada jaso gendualako ausardiaz jokatu eta Barri Ona mundu osoan zabaltzeko.

DAMU OTOITZA

Izan daigun konfiantza bere mahaiaren inguruan esertzeko zain dogun Jaungoiko Aita-Amagan eta eskatu deiogun parkamena.

- Harrokeria edo norberekeriagaitik besteei eskuzabaltasunez parkatu ez deutsegulako. Erruki, Jauna.
- Behartsuen ondoan egoteko ausardiarik izan ez dogulako. Kristo, erruki.
- Behartsuenei laguntzeko arriskurik hartu ez dogulako. Erruki, Jauna.

Jaungoikoak badaki ze buztinetik sortu ginduzan, ulertzen dau gure makaltasuna eta maitasunez parkatzen deusku. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

IRAKURGAIK - Is 45, 1. 4-6; 1Ts 1, 1-5b; Mt 22, 15-21

HOMILIARAKO OHARRAK

“Izan zaitetz ausarta, misinoa zain dozu” goiburua aukeratu dabe aurtengo Domund egunerako. Gure fedearen barritzea da, Jesukristogaz bat egitearen grazia danakaz konpartitzeko nahi eta ausardian adierazoten dana. Misinoen inguruan hitz egiteak gure Eleizaren eskuzabaltasuna be gogoratzen dau, euren bizia be emon daben hainbeste misiolariren bitartez Barri Ona zabaldu izan daualako. Ebanjelioan, Jaungoikoa ahaztu egiten dauan eta inongo bereizketa barik giza alderdia eta jainko alderdia banatu egiten dituan mundua –gaurko mundua- agertzen jaku. Gaur be badago makalenen gizarte sustapenaren alde jarduteko prest dagoan, baina Ebanjelioaren mezu eraldatzailea alde batera izten dauan sinistedunik, edo alderantziz, alderdi espiritualean arreta osoa jarten dauan eta atsekabetuta bizi diran anai-arreben benetako duintasuna kontuan hartzen ez dauan sinistedunik. Jesusen erantzuna hauxe da: “emon Zesarri Zesarrena dana eta Jaungoikoari Jaungoikoarena dana”. Honen haritik, misinoak gizon eta emakume guztien osoko ona suspertzeko konpromisoa barritu egiten dau, Barri Ona danei eroanez. Jesusek zeruko Aitaren bikaintasuna jarri dau bere ikasle guztientzako goreneko ideal lez (ik. Mt 5, 48); holan, Aitaren antzera, erabateko doakotasunez, besteengana zabaltzen erakutsi deusku.

Misiolarien euren gain hartu dabe ausardiaz gizadiaren zaurien aringarri izateko misinoa. Aita Santuak Domund egunerako kaleratu dauan mezuko berbek zentzun betea jadesten dabe beraz: "Munduak Jesukristoren Barri Ona funtsezko zerbait lez behar dau; Berak, Eleizaren bitartez, Samariar Onaren misinoaz jarraitzen dau, bide bihurrietan galdu diran eta helmugarik ez daukienak atsedean barik bilatuz".

Jaungoikoari esker, ez da Ebanjelioaren indar eraldatzailearen lekukotasuna emoten dauan esperientzia esanguratsurik falta. Misinoa Ebanjelioaren eraldaketa horretan oinarritzen da, poztasun kutsakorra dakarren Ebanjelioaren eraldaketan. Kristo ezagutzen dauanak norberekeriatik askatzen dauan eta maitasunean sormen-iturri dan bizimodu barria aurkitzen dau; bestekaz lokarriak estutzeko eta, Jaungoikoa lagun dogula txarkeria orori aurre egin deikeogula sinistuta, atsekabez betetako era bateko eta besteko basamortu eta esperientzietara erromes joateko gaitasuna emoten dauan bizimodua. Horregaitik, bizia eskaini daiteke ausardiaz eta urrunera joan, anai-arrebengana, poztasun beraz gozatu daien.

OHARRA OFERTORIOARI

Misinoen Munduko Jardunaldian eukaristia-ospakizunerako doeak -ogi eta ardaoa- eskainiko doguz eta eurokaz batera geure burua be eskaini gura dogu, Jaungoikoaren maitasunaren benetako lekuko bihurtu ahal izateko. Aldi berean, DOMUND egun honetan batu barri dan dirua be eroango dogu altarara, egun hoetako eta betiko konpromisoa adierazoteko: Jesukristoganako fedea zabaldu eta sustraitu mundu osoan, misiolarien bitartez.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jaungoikoak entzun egiten dau apaltasunez zuzentzen jakon otoitza. Horregaitik, konfiantza osoaz aurkezten deusagu geurea.

- Eleiza lez, Samariar Onaren misinoaz jarraitu daigun, gizadiaren zauriak osatuz eta, Artzain Onaren antzera, galdu diranak aspertu barik bilatuz. ***Eskatu deiogun Jaunari.***
- Aita Santu, gotzain, abade, erlijioso, ume, gazte, heldu eta familiok misiolari espirtualtasuna bizi eta misiolari bihotza izan daigun. ***Eskatu deiogun Jaunari.***
- Mundu guztiko misiolariak jarraitu daiela errukiaren poztasunaz besteen bila ataraten. ***Eskatu deiogun Jaunari.***
- Gure kristau alkarteetako kideen arteko hartu-emonak anaikorrak izan daitezcan eta Jaungoikoak emon euskuzan doeak baloratuz, besteen zerbitzura jarri daiguzan. ***Eskatu deiogun Jaunari.***
- Eukaristia ospatzeko batu garanok geure alkarteetako erosotasunetik atara eta leku baztertuetara joan gaitezcan Barri Ona iragartera. ***Eskatu deiogun Jaunari.***

Onartu, Aita ona, zure seme-alaben otoitz apala, zeugan konfiantza osoa jarrita egin dabe-eta. Kristo gure Jaunaren bitartez.

AGURRA

Domund eguneko eukaristian parte hartzeak gure kristau izatea misiolari ikuspuntutik bizitzera garoaz. Sentitu gaitezcan misiolari gaur batez be, mundu osoan Ebanjelioa biziaren iturri egiten diharduen gizon eta emakumeakaz bat eginez. Gure misiolari egitekoa ez daitela Domund eguneko oroipen hutsa izan eta misiolariakaz bat eginda iraun daigula otoitz eginez eta laguntasuna eskainiz.

DIRU-LAGUNTZA
ELEIZBARRUTIAREN DIRU-LAGUNTZA

OMP

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik **ESKERRAK** emon gura deusueguz urtean zehar Aita Santuak Sustatutako Egintzetan erakusten dozuen eskuzabaltasunagaitik eta egiten dozuen guztiagatik. Taldeek, parrokiek, kongregazioek eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrizan materialei aurre egiteko balio dauala esan gura deusuegu (ikus 'ILLUMINARE' aldizkariaren 401. alearen azkeneko orrialdeak).

Gure eleizbarrutiko 300 misiolari inguruk jarduten dau 50 herrialde ingurutan, euren bizia eta egitekoa beste alkarte batzuetan alkarbanatuz, Barri Ona iragarritz, Jaungoikoaren Erreinua eraikiz. Misinoen jardunaldia dala-eta, eskerrak emon gura deusueguz euren misiolari zerbitzuagaitik eta eskerrak emon gura deusueguz diruz laguntzen deuskuzuenoi, hori ezinbestekoa da-eta, misiolari egitekoak aurrera egin daian.

Bizkaiko OMP dalakoaren 2016. urteko mobimentu ekonomikoa zehazten deusuegu. Zuen barrien zain gagoz; informazino gehiago behar badozue, deitu eiguzue eta bardin emoten doguzan datuetan akatsen bat badago.

Banku-eta kutxa-zenbakiak gogoratzen deusueguz, nahi edo ahal izan ezkeru diru-sarrerak egin daizuezan. Sarrera horreek egiterakoan, ez ahaztu **PARROKIAREN IZENA ETA DOHAINTZA NONDIK EGITEN DAN jartea.**

KUTXABANK-BBK..... 2095 0000 76 200002710-2

LABORAL KUTXA..... 3035 0019 90 019000941-8

BBVA..... 0182 0086 41 001491556-5

BANCO POPULAR..... 0075 0005 63 06012555-23

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, agur bero bat.

Felicitas Martín Fernández

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkarria

DOMUND 2017

SÉ VALIENTE LA MISIÓN TE ESPERA



DELEGACION DIOCESANA DE MISIONES

Plaza Nueva, nº 4 – Entreplanta.
48005-BILBAO. Teléfono 94.401.36.99
e-mail: misiobi@misioak.org. misiobi@bizkeliza.org

DOMUND 2017

SÉ VALIENTE LA MISIÓN TE ESPERA

Este año el lema “SÉ VALIENTE: LA MISIÓN TE ESPERA” es una invitación donde todos estamos llamados a la misión. Acogemos la propuesta del papa Francisco de vivir un mes misionero extraordinario, vivir un tiempo extraordinario de oración y reflexión sobre la *misio ad gentes...* Acogemos su invitación de celebrar esta jornada mundial de las misiones en comunión con toda la Iglesia, a vivir la dimensión universal de la fe y la caridad cristiana con los más pobres. Queremos potenciar una corriente fraterna y solidaria de colaboración con las necesidades de los misioneros y misioneras y de las misiones a través de las Obras Misionales Pontificias, lo que seguro nos ayudará a ser cada vez más una Iglesia en misión.

Invitamos a todas las comunidades a participar en las distintas actividades de cooperación misionera organizadas con motivo del DOMUND. Especialmente quiero destacar la colaboración de los misioneros del SCAM (Servicio Conjunto de Animación Misionera) que nos visitarán y estarán en colegios e ikastolas dando su testimonio. Siempre son experiencias significativas que dan testimonio de la fuerza transformadora del Evangelio. Las parroquias que quieran contar con su testimonio misionero por favor ponerse en contacto con la delegación.

¡Feliz día del DOMUND!, aprovechemos este día y mes misionero de reflexión y acción para suscitar en nuestros grupos y comunidades el deseo de salir de nuestras propias seguridades y fronteras para abrirnos a culturas y realidades distintas a las nuestras y nos haga ponernos en camino llevando la Buena Nueva de Jesús a todos.

¡Muchas gracias a todos los que colaboráis en esta campaña!

Un abrazo fraterno

Felicitas Martín Fernández
Delegada Diocesana de Misiones

DOMUND 2017 La misión en el corazón de la fe cristiana

Queridos hermanos y hermanas.

1. El lema de la campaña del DOMUND de este año pone la misión en el corazón, en el centro de la fe cristiana. Jesús, antes de volver junto al Padre, ordenó a sus discípulos: "Id, y haced discípulos a todas las naciones, bautizándolos en el nombre del Padre, y del Hijo, y del Espíritu Santo; enseñándoles que guarden todas las cosas que os he mandado; y he aquí yo estoy con vosotros todos los días, hasta el fin del mundo. Amén." (Mt 28, 19-20). Por tanto, la misión es un encargo que el Señor hace a quienes se reconocen en su discipulado.

2. Vemos que este mandato de Jesús contiene varios elementos. La primera parte del mandato se sustenta en la segunda que constituye una promesa consoladora y esperanzadora: "yo estoy con vosotros todos los días hasta el fin del mundo". Él se ha querido quedar junto a nosotros, en medio de nosotros. Su presencia ilumina toda la existencia humana, llenándola de amor, esperanza y misericordia. Ya no podemos decir que estamos solos. El Señor está con nosotros y si Él está, está también todo su Cuerpo que es la Iglesia. De este modo nos vemos sumergidos en una realidad más grande, en una comunión que nos es dada como un regalo inmenso de Dios. El discípulo de Jesús vive en comunión con Él y con los hermanos.

3. Fundamentados en esta presencia de Jesús, en su presencia real y operativa, y fiados en su palabra, podemos echar cada día las redes en el inmenso mar del mundo, como hizo Pedro ante la invitación de Jesús. Este mar es muy diverso en pueblos, naciones, razas, lenguas, culturas. Y Jesús indica las dos acciones por las que este discipulado puede hacerse realidad: mediante el bautismo y mediante la enseñanza de guardar lo que el Señor nos ha confiado. Ambas acciones están sostenidas y operadas por el Espíritu Santo. "Nadie puede decir: "¡Jesús es Señor!" sino por influjo del Espíritu Santo" (1 Co 12, 3). La enseñanza no prende el corazón humano si no es bajo la acción del Espíritu. Así mismo, en el bautismo somos incorporados a la vida de Jesús por medio del Espíritu, que es infundido en nuestros corazones. Si la misión se encuentra en el corazón de la fe, el Espíritu Santo se encuentra en el corazón de la misión. Él suscita nuevas vocaciones a la vida misionera y la sostiene con sus dones que inflaman todas las dimensiones del discípulo de Jesús.

4. Esta misión no es una tarea individual, sino comunitaria y coral. Cristo nos sumerge en la realidad comunal de la Iglesia. La evangelización es una tarea en comunión. El mismo Espíritu Santo es el artífice de esta comunión y hace posible que la diversidad de pueblos, lenguas, razas y naciones puedan constituir en Jesús un único pueblo. En su mensaje de este año, el Papa Francisco se dirige de modo particular a los jóvenes con motivo del próximo sínodo dedicado al discernimiento y la fe en los jóvenes. Afirma que ellos son la esperanza de la misión. Efectivamente, el corazón joven es capaz de responder con generosidad inusitada y gran audacia a la llamada del Señor. El acomodamiento, aburguesamiento, la falta de inquietud misionera es propio de corazones envejecidos. La llamada a la misión debe estimular no sólo a los jóvenes en edad, sino también a los que queremos desatar nuestro corazón de aquello que lo envejece y lo acartonada, que le impide responder con prontitud y alegría. De un modo u otro, todos estamos convocados a la misión y a participar en ella. Pidamos la luz de Dios para ver de qué modo esta llamada se hace realidad en nuestras vidas.

5. María, cuando recibió el anuncio del ángel Gabriel, "se puso en camino y fue aprisa a la montaña" (Lc 1, 39) al encuentro de su prima Isabel en actitud de anuncio y de servicio. La misión nos pone en camino, con energías renovadas, a participar del anuncio del Evangelio y de la edificación del Reino de Dios. Anunciar y servir son dos caras de la misma moneda que nacen de la profunda experiencia de Dios. Que esta jornada del DOMUND haga de nuevo que la misión se sitúe en el corazón de nuestra fe, que la misión resuene con fuerza en el fondo de nuestro corazón. Encomendamos a nuestros misioneros y misioneras, y nos comprometemos a ayudarles con nuestra oración y nuestra colaboración material y económica. Oremos por las vocaciones a la misión y hagamos que el ardor misionero se reavive en nuestros corazones y nos saque de nuestros conformismos para caminar hacia la misión, confiados en la palabra y la llamada del Señor. Lo pedimos por medio de María, Reina y Madre de la misión. Con gran afecto.

+ Mario Iceta Gabicagoeascoa
Obispo de Bilbao

22 DE OCTUBRE – XXIX DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO DOMUND 2017 – “SÉ VALIENTE LA MISION TE ESPERA”

MONICIÓN DE ENTRADA

Nos hemos reunido en torno a la mesa de Cristo resucitado. Él reúne en torno a sí a todas las personas, pero se fija con especial amor en el pobre, el humilde, el afligido.

Hoy es el día del Domund, la Jornada Mundial de las Misiones que celebra toda la Iglesia. El Mensaje que el papa Francisco nos dirige con este motivo nos recuerda que la misión es el corazón de la fe cristiana y el lema de la Jornada nos invita a ser valientes porque la misión nos espera.

La Misión de la iglesia está destinada a todas las personas de buena voluntad y está fundada sobre la fuerza transformadora del Evangelio. Abramos nuestros corazones a Dios para que despierte en nosotros y nosotras nuestro ser misionero, ya que, por el bautismo, el Espíritu nos impulsa a implicarnos con valentía en que el Evangelio llegue a todos los rincones de la Tierra.

ACTO PENITENCIAL

Confiemos en Dios Padre-Madre, que nos espera para sentarnos a su mesa y pidámonle perdón.

- De las veces que por orgullo o egoísmo no hemos ayudado desinteresadamente a las demás personas, lejanas o cercanas. *Señor, ten piedad.*
- De las veces que nos ha faltado valor para estar de verdad al lado de las personas empobrecidas. *Cristo, ten piedad.*
- De nuestra falta de fe a la hora de emprender riesgos para ayudar a las personas más necesitadas. *Señor, ten piedad.*

Dios conoce el barro del que nos creó, comprende nuestra debilidad y nos perdona con amor. Por Jesucristo nuestro Señor.

LECTURAS - Is 45, 1. 4-6; 1Ts 1, 1-5b; Mt 22, 15-21

SUGERENCIAS PARA LA HOMILÍA

El Domund de este año tiene como lema “Sé valiente, la misión te espera”. Es una renovación de nuestra fe, que se expresa en el deseo valiente de compartir con el mundo entero la gracia del encuentro con Jesucristo. Hablar de las misiones recuerda también la generosidad de la Iglesia española, al haber compartido el Evangelio gracias a tantos misioneros y misioneras que han dado sus vidas por esta causa. En el Evangelio, encontramos la actualidad de un mundo que se olvida de Dios y separa sin discernimiento lo humano y lo divino. Hoy también hay creyentes dispuestos a echar una mano en favor de toda promoción social de los más vulnerables, pero que “pasan” del mensaje transformador del Evangelio; o que solo miran lo espiritual y “pasan” de la dignidad real de tantísimos hermanos que sufren. Jesús responde con un “dad al César lo que es del César y a Dios lo que es de Dios”. En esta línea, la misión renueva el compromiso de promover el bien integral de todo ser humano, llevando el Evangelio a todos. Jesús ha puesto la perfección del Padre celestial como ideal máximo para todo discípulo suyo (cf. Mt 5,48); así nos ha enseñado a abrirnos a los demás como el Padre, en la más absoluta gratuidad.

Desde ahí, los misioneros han acogido con valentía la misión de ser bálsamo de las heridas de la humanidad. Encuentran así pleno sentido las palabras del Papa en su Mensaje para el Domund: “El mundo necesita el Evangelio de Jesucristo como algo esencial. Él, a través de la Iglesia, continúa

su misión de Buen Samaritano, curando las heridas sangrantes de la humanidad, y de Buen Pastor, buscando sin descanso a quienes se han perdido por caminos tortuosos y sin una meta.

Gracias a Dios no faltan experiencias significativas que dan testimonio de la fuerza transformadora del Evangelio". La misión está fundada sobre esta transformación del Evangelio, que trae una alegría contagiosa. El que conoce a Cristo encuentra una vida nueva, que lo libera del egoísmo y es fuente de creatividad en el amor; una vida nueva capaz de estrechar lazos con los demás e ir en peregrinación hacia los diversos desiertos y experiencias de sufrimiento, con la esperanza cierta de que con Dios podemos hacer frente a todo mal. Por ello, uno puede ofrecer su vida con valentía e ir lejos, a los hermanos, para que gocen de esa misma alegría.

MONICIÓN AL OFERTORIO

La Jornada Mundial de las Misiones nos ofrece la oportunidad de hacer la ofrenda de los dones que van a servir para la celebración eucarística –el pan y el vino-, en ellos nos ofrecemos también para ser transformados en auténticos testigos del amor de Dios. Al mismo tiempo, llevamos ante el altar la colecta que se acaba de realizar con motivo del DOMUND, como plasmación de nuestro compromiso, en esta Jornada y siempre, para que la fe en Jesucristo se difunda, arraigue e irradie en todo el mundo por medio de los misioneros.

ORACIÓN DE LOS FIELES

Dios escucha la oración que se le dirige con espíritu humilde; animados por el Espíritu Santo. Por eso, le presentamos nuestra oración confiada.

- Para que todos, como Iglesia, continuemos nuestra misión de Buen Samaritano, curando las heridas sangrantes de la humanidad y, a imitación del Buen Pastor, busquemos sin descanso a quienes se han perdido. ***Roguemos al Señor.***
- Por el Papa, los obispos, sacerdotes, religiosos, niños, jóvenes adultos y familias, para que, viviendo una espiritualidad misionera, nos involucremos todos para hacer crecer en cada uno un corazón misionero. ***Roguemos al Señor.***
- Por los misioneros y misioneras en todo el mundo, para que sigan saliendo con la alegría de la misericordia al encuentro de los demás. ***Roguemos al Señor.***
- Para que nuestras comunidades cristianas sean ejemplo de relaciones fraternas maduras, donde cada persona ponga sus dones al servicio de los demás y todos valoren los dones que Dios nos dio. ***Roguemos al Señor.***
- Por todas las personas que nos encontramos participando en la eucaristía, para que dejemos nuestra comodidad y salgamos a las periferias existenciales que aguardan el anuncio del Evangelio. ***Roguemos al Señor.***

Acoge, Padre de bondad, la oración humilde tus hijos, que han puesto su confianza solo en Ti. Por Cristo, nuestro Señor.

DESPEDIDA

La participación en la eucaristía de jornada del Domund nos impulsa a vivir nuestro ser cristiano desde la perspectiva misionera. Sintámonos misioneros y misioneras hoy de manera especial, con todos los hombres y mujeres que están haciendo vida el Evangelio en todo el mundo. Que nuestra labor misionera no se reduzca a un mero recuerdo el día del Domund, sino que nos unamos a todos ellos y ellas con nuestra oración constante y nuestra ayuda permanente.

COOPERACION ECONÓMICA
APORTACION ECONÓMICA DE LA DIOCESIS
OMP

Desde La Delegación Diocesana de Misiones queremos daros las **GRACIAS** por vuestra generosidad y tarea que a lo largo de todo el año ofrecéis a favor de las Obras Misionales Pontificias. Somos testigos de las donaciones desinteresadas que grupos, parroquias, congregaciones y personas particulares aportáis y que hace posible cubrir las necesidades materiales de los misioneros y misioneras que están por distintos países (Ver hojas 32 y siguientes de la revista ILLUMINARE Nº 401).

Cerca de 300 misioneros y misioneras de nuestra diócesis trabajan en más de 50 países compartiendo vida y tarea con otras comunidades, anunciando la Buena Noticia, construyendo el Reino de Dios. Aprovechando la Jornada de Las Misiones queremos darles las gracias por su servicio misionero, y también a vosotros que nos apoyáis económicamente, lo que hace posible que nuestra tarea misionera continúe.

Os detallamos el movimiento económico de OMP de Bizkaia a lo largo del año 2015. Esperamos vuestras comunicaciones, si deseáis más información no dudéis en llamarnos así como si hubiera algún error en los datos que aportamos.

Os queremos recordar **los números de cuentas** de los distintos bancos y cajas donde podéis realizar vuestros ingresos. Así mismo os recordamos que es importante **SEÑALAR EL NOMBRE DE LA PARROQUIA Y EL LUGAR DESDE EL QUE SE HACE EL DONATIVO.**

KUTXABANK-BBK	2095 0000 76 2000027102
LABORAL KUTXA.....	3035 0019 90 0190009418
BBVA.....	0182 1300 11 001491556-5
BANCO POPULAR.....	0075 0005 63 0601255523

En nombre de todos los misioneros y misioneras y de OMP recibid un saludo cordial.

Felicitas Martín Fernández
Delegada Diocesana de Misiones